

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 2617

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 24koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Durangoko (Bizkaia) Eguzkitzagoiena PP-2 etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena.*

### AURREKARIAK

Ebazpena, 2022ko azaroaren 2koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Durangoko (Bizkaia) Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko otsailaren 10ean argitaratutako iragarkiaren bitartez, Durangoko Udalak jendaurrean jarri zituen Durangoko Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektua eta horri dagokion ingurumen-inpaktuaren azterketa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, egokitzat jotako alegazioak aurkez zitezten. Jendaurrean jartzeko izapidea amaiturik, alegazio bat jaso da.

Jendurreko informazioaren izapidearen aldi berean, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, Durangoko Udalak kontsultak egin zizkien eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei. Emaitza espedientean jasota dago.

2024ko otsailaren 15ean, Durangoko Udalak Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean osatu zuen Durangoko Eguzkitzagoiena PP-2 etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskaera.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu zuen:

– «Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektorea urbanizatzeko proiektua. 1. dokumentua (01 berr.). Memoria». ArkiGestek egin du, eta 2012ko otsaileko data du.

– Eguzkitzagoiena PP-II sektorearen urbanizazio-proiektuaren eranskina. Bidein ingeniariatzak egin du, eta 2022ko ekaineko data du.

– «Durangoko Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektuari buruzko IIA arrunta» izeneko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketa. Geotechek egin du, eta 2023ko maiatzeko data du.

– Jendurreko informazioaren izapidearen emaitzari buruzko dokumentazioa.

– Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidearen emaitzak deskribatzen dituen dokumentua.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 1. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, haien helburua da ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumena babesteko maila handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie arau horren II.D eranskinean zerrendatutako proiektu publiko edo pribatuei. Durangoko Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektua ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntari atxikita dago. Izan ere, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinean dago jasota, zehazki 4. epigrafean: «II.E eranskinean jasotako beste programa batzuek, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura gauzatu ondoren ingurumen-organoak hala erabakitzen badu edo sustatzaileak hala eskatzen badu».

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatzeko, Durangoko Udalak, organo substantibo gisa, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egiteko beharrezkoa dena xedatu du. Horretarako, ingurumen-inpaktuaren azterketa bat gehitu du espedientean, kontsulta publikoak egin ditu, eta eragindako administrazio publikoek eta interesdunek prozeduran parte hartu dute.

Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertuta, eta ikusirik ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera dela, irismen-dokumentuan jasotako baldintzak barne, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau eman du; bertan, proiektuaren proposamenean ingurumen-arloko alderdiak sartzearen alde egin da, eta proiektua aplikatzearen ondorio adierazgarrien aipamena jaso da, baita sartu beharreko azken oharak ere, soilik ingurumen-arlokoak. Zuzendaritza hori eskumena duen organoa da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Durangoko Eguzkitzagoiena PP-2 etxebizitza-sektorearen urbanizazio-proiektuari (aurrerantzean, Proiektua) buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik. Eguzkitzagoiena sektorearen ituntze-batzarrak sustatu du proiektua, Durangoko udal-mugartean.

Eguzkitzagoiena izeneko sektorea Durangoko udalerriaren hegoaldeko muturrean dago, gaur egungo hiri-perimetroaren kanpoaldean, Durangoko indarreko plangintzan (arau subsidiarioetan, gaur egun berrikusten ari direnak) aurreikusitako etorkizuneko garapen-eremuen ondoan. Sektorea landa-izaera nabarmeneko eremu batean dago eta Eguzkitzako bide aldera jaisten den mendi-hegal baten lurra hartzen ditu. Hirigintzaren ikuspuntutik, lurzoru urbanizagarria da, plangintza indardunaren arabera.

Proiektuaren xedea Eguzkitzagoiena etxebizitza-sektoreko bizitegi-eremu baten urbanizazio-obra definitzea da, barnean direla haren sarbideak eta espazio libreak, eraikin isolatuetako etxebizitza kolektiboen garapen berriari ekiteko, hori guztia indarrean dagoen udal-plangintzan oinarrituta: Durangoko Arau Subsidiarioak (2005ean behin betiko onartuak) eta haien aldaketa Eguzkitzagoiena PP-2 bizitegi-lurzoru urbanizagarriko sektoreari dagokionez (2008), eta, orobat, eremu horren Plan Partziala, 2008ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez behin betiko onartua.

Sektoreak 119.011 m<sup>2</sup>-ko azalera gordina du, eta hari atxikita daude espazio libreen sistema orokor bat (sektorearen ipar-mendebaldean dago, eta 84.141,16 m<sup>2</sup> ditu) eta bide-sistema orokor bat (6.665,84 m<sup>2</sup> ditu). Guztira, proiektuaren eremuak 21 ha inguruko azalera du.

Garapenean jasotzen da sektorean gaur egun dauden bideak oinarritzat hartu eta handitu egingo direla. Zehazki, sarbidea Eguzkitza bidetik egingo da; bide horretatik, beste bide bat abiatzen da, Santikurutzeraino igotzen dena, sektorearen ipar-mendebaldeko mugatik oso gertu. Bide horretatik beste bide batzuk abiatuko dira beheko aldean, eraikin berrietarako sarbideak izango direnak.

Lurraren ezaugarriak direla eta, eraikinak lerrokadura mailakatueta antolatuko dira, Eguzkitza bidearekiko paraleloan. Mendi-hegalaren beheko aldean, babes ofizialeko bi etxebizitza-bloke (S+BS+2 profilekoak), irakaskuntzarako lurzati bat eta ponpaketa-depositu bat (bertan dago gaur egun) daude antolatuta. Jarraian, goiko kotan, etxebizitza kolektiboko bizitegi-eraikinen hiru lerrokadura antolatzen dira, eraikin isolatueta. Etxebizitza kolektibo libreko 16 bizitegi-bloke proiektatzen dira, S+BS+2 profilekoak eta beheko solairuan lorategiak dituztenak, baita etxebizitza tasatuko bloke bat ere. Guztira, 357 etxebizitza berri aurreikusten dira.

Indarrean dagoen plangintzaren arabera, 27.809 m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna ezartzen da etxebizitza libreetarako, 2.105 m<sup>2</sup>-koa udal-etxebizitza tasatuetarako eta 5.789 m<sup>2</sup>-koa babes ofizialeko etxebizitzetarako.

Erdialdean, etxebizitzen artean, kirol-ekipamendu pribaturako bi lurzati antolatu dira eta, Santikurutzeko bidearen ondoan, merkataritza-ekipamendu sozialerako lurzati bat. Etxebizitzen iparraldean, kirol-ekipamendu publikorako lurzati bat dago. Eskailera batek urbanizazioa zeharkatuko du behetik gora, eta ekipamendu pribatuekin eta kirol-eremu publikoarekin lotuko ditu bide guztiak. Bide-sistema orokorraren azalera 6.665,84 m<sup>2</sup> da.

Gainera, 84.141,16 m<sup>2</sup>-ko azalera xedatzen da eremuaren goiko aldean (283 kotaraino, non piknikgunea duen begiratoki bat proposatzen baita), espazio libreen sistema orokorraren barruan, ibilgailuetarako eta oinezkoentzako sarbidea izango duena. Hemen, ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako lehengoratzeko-proiektuaren arabera, konpentsazio-neurri gisa, 17.000 m<sup>2</sup> harizti landatzea proposatzen da gaur egun dagoen pinu-landaketaren ordeztu, batez ere bizitegi-eremuaren mugan.

Bestalde, Espazio Libreen Tokiko Sistemarako lagapenak behealdean daude, etxebizitza-eremuaren inguruan. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, espazio libre horiek 38.692,72 m<sup>2</sup>-ko azalera izango dute eta parke publiko gisa konfiguratuko dira; etxebizitza tasatuen blokearen ondoan ere lurzati bat eratuko da, haurren jolasgune izango dena. Zona horretan, berdegune guztiak lehengoratzeko aurreikusten da, hariztiak landatuz (39.000 m<sup>2</sup> inguru izango dira).

Era berean, proiektuak oinarritzko zerbitzu-sare guztiei dagozkien azpiegiturak garatzea aurreikusten du (saneamendua, ur-hornidura, energia elektrikoa, telefonia eta abar). Lurpetik igaroko dira gehienak, eta ondoz ondoko eremu urbanizatueta dauden konexio-puntuekin lotuko dira.

Euri-sareari dagokionez, proiektuak zenbait neurri ezartzen ditu hiri-drainatze jasangarrirako, eta, horretarako, jarduketak egin beharko dira behin betiko hiritartuta geratuko diren eremuetatik kanpo. Zehazki, babes-areka bat egingo da goiko kotetatik datozen jariatze-urak biltzeko, horiek bizitegi-eremura ez iristeko. Ur horiek areka perimetral baten bidez bideratuko dira espazio libreetan, ponpaketa-deposituaren ondoan dagoen iragazketa-gune zabal bateraino. Gune urbanizatueta bildutako euri-ur gehienak ere lehen deskribatutako iragazketa-eremura bideratuko dira.

Lursailaren malda handia dela eta, hegalean baitago, bi motatako euste-hormak erabiliko dira esparrua urbanizatzeko: hormigoi armatuzko hormak (14 m garai gehienez, rokodromo gisa erabiliko den euste-hormaren kasuan, eta 2 eta 4,5 m artekoak gainerako hormetan), eta lur indartuzko horma berdeak (tarteko eremuan zuhaixkak landatzeko berma batekin). Sektoreko beheko kotetan ere ezpondak egin beharko dira.

Horrek guztiak lur-mugimendu handia dakar: proiektuak aurreikusten duen indusketa-bolumena 284.018 m<sup>3</sup> da. Material horietako gehienak indusketa-betelanetarako berrerabiliko dira, eta 22.786 m<sup>3</sup> hondakindegira eramatea edo soberakinak proiektuaren eremutik kanporatzea aurreikusten da.

Urbanizazio-proiektuaren eranskinean ageri den Obra Planean ezarritakoaren arabera, obrak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa da.

Guztira, 12.567 t eraikuntza- eta eraipen-hondakin sortzea aurreikusten da.

Azken batean, urbanizazio-proiektuaren xedea da indarrean dagoen plan partzialak aurreikusten duen eremuaren bizitegi-erabilera gauzatzeko beharrezkoak diren obrak eta jarduketak definitzea: bideak, lurrazaleko aparkalekuak, aisialdi-eremu publikoak, kirol-eremua, haur eta gazteentzako parke bat eta aisiarako gune bat, eta Begiratokia, zeina eremuaren goialdean baitago eta piknikgunea baitu. Lurzati pribatuak berdinduta utziko dira, baina ez da esku-hartzerik egingo haietan, harik eta eraikitzen den arte.

Alternatibei dagokienez, dokumentazioan justifikatzen da aukera bakarra dela plan horretan antolatutakoa, proiektuak sektoreko plan partzialean jasotako zehaztapenak garatu nahi baititu.

Bigarrena.– Baldintza hauek ezartzea proiektua gauzatzeko (lotesleak dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.1 artikuluan xedatzen denaren arabera):

A) Proiektua garatzeko baldintzek zein babes- eta zuzenketa-neurriek jarraitu egingo diete indarrean dagoen araudiari, Ebazpen honen apartatu hauetan ezarritakoari, eta, aurrekoari aurka egiten ez dion guztian, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Durangoko Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoari.

Proiektu honen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurak, Proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaz gain, kontuan izan du espedientean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozeduraren fase orotan erantsitako txostenen edukia, bai eta jendaurreko informazioaren izapideak iraun duen bitartean jasotako alegazioak ere.

B) Proiektua aldatzen edo zabaltzen bada, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Proiektuan aldaketa puntualak egiten badira, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, aurreko paragrafoan adierazitako garrantzia ez badute ere. Babes- eta zuzenketa-neurrietan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintzen agirian jasoko dira proiektuari egiten zaizkion aldaketak.

C) Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren alderdi garrantzitsuak.

Proiektuaren eremua Durangoko udalerraren hegoaldean dago, Eguzkitza bidera jaisten den malda handiko hegal bateko lurretan. Guztira 119.011 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta, hirigintzaren ikuspegitik, lurzoru urbanizagarria da. Gaur egun, lurzoruaren erabilera landa-inguruneari –nekazaritza eta basogintzakoari– lotutako ustiategiei dagokie, eta nabarmentzekoak dira belardi atlantikoen mosaiko batek, baso naturalek eta birpopulaketako pinudiek hartzen dituzten azalera zabalak.

Hauek dira eremuaren ezaugarri nagusiak:

– Proiektuaren eremua Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari dagokion Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan dago. Funtsean, Elorrio II (ES059MAR002750) gisa identifikatutako ur-masaren arroan dago, Ibaizabalen ibaiadarrean. Hego-mendebaldeko muturra Ibaizabal I (ES059MAR002780) ur-masaren isurtze-arroan sartzen da. Azterketa-eremuan barrena ez da ur-ibilgurik edo jariatzerik igarotzen.

– Lurpeko urei dagokienez, eremua hegoaldeko antiklinorioko (ES017MSBT017.006) ur-masaren gainean dago, eta ez da identifikatu interes hidrogeologikoko eremurik.

– Bertan dagoen landarediari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren estimazioen arabera, eremu horretako zenbait azalera handitan eskualdearen intereseko baso naturalak daude (haritzia/baso misto atlantikoa) (3,2 ha), baita Batasunaren intereseko 6510 BIH habitata ere, hots, «Altitude baxuko sega-belardi elkorrak» (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) (5,6 ha). Tokiko konexio ekologikoetarako balio handia duten belardi eta baso autoktonoen mosaikoa da.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, sektorean baso misto bat identifikatu da. Baso horretan *Salix sp.* espeziea da nagusi (4,35 ha-ko azalera hartzen du), eta tamaina handiko zenbait *Quercus robur* daude. Bestalde, sektorearen hegoaldeko mugan baso mistoko masa bat dago; *Pinus radiata* espeziea da nagusi, antzina koniferoak landatzeko erabiltzen baitzen zona hori.

Ziurrenik, sektoreari atxikita dagoen Espazio Librean Sistema Orokorreko zonaren zati handi bat baso misto horrek hartzen du, *Pinus radiata* nagusi dela; bestalde, mendebaldeko mugaren ondoan sekzio bat konifero horiek landatzeko erabiltzen da. Gainera, eremuaren mendebaldeko mugan Santikurutzeroa doan bidearen ondoan, hostozabalen landaketa bat dago, GeoEuskadin jasotako informazioaren arabera.

– Azterketa-eremua bi paisaia-arrotan banatzen da. Iparraldean, Durangoko arroa, eta hegoaldean, Abadiñokoa. Ez daude katalogatuta, eta ez dute paisaia-balio nabarmenik.

– Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuaren mendebaldeko muturrean dagoen koniferoen masa bat bakarrik identifikatu da sute-arrisku oso handiko eremu gisa.

– Zaratari dagokionez, aurkeztutako azterketa akustikoaren arabera, Eguzkitza eta Santikurutzero bideak dira inguruko zarata-foku nagusiak; bide horiek eremuaren iparraldeko eta mendebaldeko mugetan barrena igarotzen dira, hurrenez hurren. Durangoko Zarataren Mapak (2016), udalerrriaren zonakatze akustikoari dagokionez, eraikitzekoa den bizitegi-eremu batean sartzen du eremua. Azterketa akustikoak eremuko maila akustikoak modelizatzen ditu, eta ondorioztatzen du, gaur egungo egoeran, kalitate akustikoko helburuak (KAH) betetzen direla aztertutako hiru aldietan (eguna, arratsaldea eta gaua).

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, proiektatutako jarduketan inpaktu nabarmenenak obra-fasean gertatuko dira, honako hauen ondorioz: landaredia moztea eta sastrakak garbitzea, lurra mugitzea eta soberakinak sortzea, hondakinak sortzea, makinak lekuz aldatzea, istripuz isurketak egitea, jariatzeek lurrazaleko urei kalte egitea eta emisio atmosferiko eta akustikoen herritarrei eragozpenak eragitea.

Aurkeztutako dokumentazioaren eta espedientean dauden txostenen arabera, bereziki garrantzitsua da aurreikusitako urbanizazio-obren ondorioz natura-baliabideak galtzea (lurzoruak eta landaredia), Batasunaren intereseko habitatak eta baso naturalak barne.

Alderdi horiei dagokienez, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 4,35 ha inguruko baso mistoaren masa bati eragingo zaio. Konpentsazio gisa, eremuaren barruan 5,6 ha inguru lehengoratzeari definitzen da, harizti azidofiloaren serieko berezko espeziak landatuz. Beharrezkotzat jotzen da eragindako harizti/baso mistoaren azaleraren bikoitza gutxienez lehengoratzeari, proiektuaren eremuan bertan edo hurbileko eremu batean.

Era berean, garrantzitsuak dira planteatzen diren lur-mugimendu garrantzitsuen ondoriozko inpaktuak, lekuaren geomorfologia aldatzearekin eta indusketa-soberakinak sortzearekin eta kudeatzearekin lotutakoak, zeinek 284.018 m<sup>3</sup>-ko indusketa-bolumena baitakarte (haietatik, 22.786 m<sup>3</sup>-ko soberakinak eramango dira zabortegira edo soberakindegira), eta, orobat, lekua urbanizatzeko beharrezkoak diren ezpondak, hormigoi armatuzko euste-hormak eta horma berdeak –horietako batzuk handiak dira– egitearekin lotutakoak.

Bestalde, jarduketa horien ondorioz, giza habitataren kalitatea murriztuko da (zarata, hautsa, bibrazioak, etab.) aldi baterako eta eremu jakin batean baino ez bada ere.

Ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuaren obra-faseari lotutako inpaktu akustikoaren azterketa dago jasota, eta han ondorioztatzen da fase horretan gainditu egingo liratekeela sektore horren inguruko bi baserriren bizitegi-erabilerrako definitutako kalitate akustikoko helburuak. Bestalde, gehieneko immisio-balioak ez dira gainditzen; bai, ordea, jarduera berriei aplikatu beharreko immisio-balioak. Horrenbestez, hainbat neurri planteatzen dira obretan zehar eragin akustikoa murrizteko. Horrez gain, proposatzen du ezen administrazio eskudunak, ingurune-zarataren arloan aplikatu beharreko araudia betetzeko, aldi baterako baimena eman dezala urbanizazio-obra egingo diren ingurune hurbilean kalitate akustikoaren helburuak betetzetik behin-behinean salbuesteko, obrek irautean duten bitartean, hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Hala, 6 hilabete baino gehiagoko iraupena izango dutela aurreikusten den lanetan, inpaktu akustikoari buruzko ikerketa bat egin beharko da, zuzenketa-neurriak zehazteko.

Bestalde, ustiapen-faseari lotutako inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat ere aurkeztu da; bertan ondorioztatzen denez, eremua garatu ondoren, etorkizunean, erreferentziarako araudian ezarritako kalitate akustikoko helburuak beteko dira.

#### D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatuko dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, Vitoria-Gasteizko Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Neurri horiek eta kontrolerako izendatutako langileek ingurumen-inpaktuaren azterketan ezarritako kalitate-helburuak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen honetan ezarritakoak bermatu beharko dituzte.

Neurri horiek guztiak obra kontratatzeke baldintza-agirietan eta proiektu-planoetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, obretako jardunbide egokiak aplikatuko dira.

#### D.1.– Natura-ondareari ahalik eta gutxien erasateko neurriak.

Aplikazio-araudian xedatutakoa gorabehera, honako prebentzio- eta zuzenketa-neurri hauek erantsiko zaizkio proiektuari natura-ondarea babeste aldera:

– Ezinbesteko eremu txikienean egingo dira lanak eta lurzorua okupatzea dakarten gainerako jarduketa osagarriak, betiere proiektuko planoek ezartzen dituzten mugen barruan. Aipatutako mugetatik kanpo, ez da eraginik egon beharko sarbideak egin, materialak bildu, instalazioak kokatu edo beste edozein jarduketa osagarri egin behar izateagatik, eta ahal bezainbat mugatuko da lanak egiteko makina eta ibilgailuen zirkulazioa.

– Istripuz kalterik egiten bada aipatutako eremutik kanpo, zuzenketa- eta lehengoratzeko neurriak hartuko dira. Aurrez, txostena egingo du ebazpen honetako D.11 puntuak aipatzen duen ingurumen-aholkularitzak.

– Orokorrean, zuzeneko okupaziorik aurreikusita ez dagoen eremuetan ekidin egingo da tokiko landaredia moztea, eta, bereziki, behar diren neurriak ezarriko dira nahitaez moztu behar ez diren zuhaitzei kalterik ez sortzeko. Lanak mugakide dituzten natura-interes handiko eremuetan –hariztiak eta baso mistoak dauden eremuetan eta, bereziki, haritz eta lizarren eite nabarmeneko aleak eta 6510 BIH «Altitude txikiko sega–belardi txiroak (*Alpecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)» dauden eremuetan– kontu handiz ibiliko da, proiektua gauzatzeko ezinbesteko eremuan bakarrik izateko eragina.

Horretarako, obrak hasi aurretik, zehatz-mehatz mugatu eta *in situ* balizatuko dira lanak egiteko nahitaez moztu edo kendu behar ez diren bertako zuhaitz-aleak eta Batasunaren intereseko habitatak. Gainera, kontserbatu beharreko zuhaitzak behar bezala babestuko dira, sustrai-sistemak ez izateko ez kolperik ez kalterik. Bestalde, zuinetako fasean eta lanak egiterakoan, ebazpen honetako D.11 puntuak aipatzen duen ingurumen-aholkularitzako botanika-espezialista bat izango da lanetan bertan aipatutako eremu bereziki sentikorretan, Obraren Zuzendaritzari laguntzeko.

– Obrek eragin diezaieketen tamaina handiko haritz eta lizarren aleak birlandatzearen bideragarritasuna aztertuko da.

– Obrak hasi aurretik, faunaren prospekzioa egingo da, moztu beharreko zuhaitzetan egon daitezkeen habiak, babeslekuak edo okilak eta saguzarrak detektatzeko. Hala badagokio, horiei ez eragiteko neurriak zehaztuko dira.

Fauna-habitatari eragindako erasana konpentsatzeko neurri gisa, hainbat habia-kaxa jartzea gomendatzen da saguzarrentzat, paseriformeentzat edo hegazti harrapari gautarrentzat.

– Ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpidea izango da kontuan kontratistaren instalazio-eremuak proiektatzeko, eta halaber aintzat hartuko dira obrako materialak eta landare-lurrak behin-behinean biltegitratzeko eremua eta obran sortutako tipologia desberdineko hondakinak kudeatzeko eremua. Eremu horiek ezin izango dira inola ere kokatu intereseko landare-formazioak dituzten eremuetan.

– Obrak hasi aurretik, proiektuaren eremuan egon litezkeen espezie inbaditzaileak desagerrarazteko kanpaina bat egingo da (hala nola *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Robinia pseudoacacia* edo beste batzuk).

Kontrol-neurriak hartuko dira lurrak mugitu diren landaretzarik gabeko eremuetan landare-espezie inbaditzaileak sar ez daitezen. Gainera, lurren jatorria kontrolatu beharko da; bereziki, landare-estalkia lehengoratzeko lanetan erabilitako lurren kasuan. Ahal dela, ez da erabiliko espezie inbaditzaileekin kutsatuta egon litekeen lurrik.

– Proposatutako kirol-eremu publikoak eta horiei atxikitako azpiegiturak (hala nola aparkalekuak) berriz definitzeko aukera ebaluatu beharko da, udalerrriaren egoerarekin eta dagoen eskariarekin bat etorritik, artifizializatutako azalera minimizatzeke helburuarekin.

– Bestalde, goiko aldean begiratoki bat jartzearen komenigarritasuna/birdefinizioa ere aztertuko da, baita egonlekuak, aparkalekuak eta sarbideak ere, zonan aurreikusitako eskariari erantzunez. Egokitzen jotzen da jolas-eremuaren azterketan sakontzea, eremuan dagoen harizti azidofiloa babestu ahal izateko.

D.2.– Urak eta lurzorua babesteko neurriak.

Ezarri daitezkeen prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako babes- eta zuzenketa-neurri hauek ere hartu beharko dira:

– Obrako makinak gordetzeko eremua eta hura mantentzeko lanen tokia drainatze-sare naturaletik bereizi beharko dira. Zola iragazgaitza eta efluentek biltzeko sistema bat izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta ura ez kutsatzeko. Ezin izango da egin erregaien zamalanik, olio-aldaketarik eta tailerreko jarduerarik horretarako adierazitako eremuetatik kanpo.

– Ebazpen honen D.12 apartatuan aipatzen den dokumentazioan jasoko dira elementu horien ezaugarriak, kokalekua eta neurri zehatzak.

– Lanak egiteko eremuetan, hidrokarburoak xurgatzeko material espezifikoa izango da, berehala erabili ahal izateko, istripuz isuririk edo ihesik badago: biribilkiak, material pikortatua, etab.

– Berariaz debekatuta egongo da makinak konpontzea edo makinei olio aldetzea zeregin horretarako berariaz ezarritako eremuetatik kanpo. Obrak egiten ari diren inguruan ez badago azpiegitura egokirik zeregin horietarako, berariazko eremu bat egokitu beharko da. Esparru hori mugatuta egongo da, eta zorua iragazgaitza egin beharko da; era berean, efluentek jasotzeko sistema bat eduki beharko du, lurzorua eta urak ez kutsatzeko.

– Obra-fasean, ahalik eta material xehe gutxien botako da drainatze-sarera. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta sedimentuak atzitzeko sistemak proiektatu eta gauzatuko dira, eta horietan bilduko dira obren ondorioz kutsatutako urak.

– Gailu horien tamaina zehazteko kalkulu hidraulikoak egingo dira, solidoei ongi eusten dietela bermatzeko, eta, botatzen badira, gunek jakin batean botatzen direla bermatzeko, betiere uraren parametro fisiko-kimikoak indarrean dagoen araudiaren arabekoak direla ziurtatuta.

– Sistema horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak Ebazpen honetako D.12 apartatuan aipatzen den lan-programan jasoko dira, eta beraz egokitu egingo da obrak aurrera egin ahala aipatu gailu horien kokapenean aldaketak programatzen direnean.

– Tratamendu-sistemak aldian-aldian ikuskatuko dira, edukiera erabilgarria nahikoa izateko une oro eta, hartara, tratamendu-sistemaren errendimendua ahalik eta onena izateko.

– Dekantatutako jalkinak aldian-aldian jaso eta kudeatuko dira, ebazpen honen D.6 apartatuan xedatutakoaren arabera.

– Hormigoi-upelak berariaz horretarako egokitutako guneetan garbituko dira. Ezingo da inola ere hormigoi-esnea ibilgura isuri. Hormigoiaren hondakinak ebazpen honetako D.6 apartatuan ezartzen diren baldintzen arabera kudeatu beharko dira.

– Dekantazio-putzuen aldizkako mantentze- eta garbiketa-lanak egin beharko dira, eta metatutako lohiak aldizka hustuko dira, tratamendu-sistemaren funtzionamenduaren errendimendua optimoa bermatzeko.

– Obren eraginez soildutako lurren landare-berritze azkarra eta handia egingo da. Horrela, obra-leku bakoitzean lur-mugimenduak amaitu ahala, ingurumen-eraginaren azterlanean adierazten diren birmoldatze- eta landareztatze-lanak egingo dira.

– Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-espeditentean jasotako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera, Proiektuak, alde batetik, euri-urak, eta, bestetik, hondakin-urak biltzeko sare bereizle bat izango du. Isur daitezkeen hondakin-ur guztiak saneamendu-sistema orokorrean sartu beharko dira, eta dagozkien isurketa-baldintzak beteko dituzte. Euri- eta hondakin-uren sarearen ezaugarri nagusiak bat etorriko dira proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-espeditentean jasotako dokumentazioarekin.

– Proiektuan deskribatutakoez gain, hiri-drainatze jasangarriko sistema gehigarriak ezartzea baloratuko da, hala nola zoladura iragazkorak, landare-estalkiak, areka hobetuak eta abar.

D.3.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria izango dela bermatzera zuzendutako neurriak.

– Proiektua ez da garatzen irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan (Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa) jasotako leku bakar batean. Hala ere, obrek dirauten bitartean lurra kutsatzen duten jarduerak edo instalazioak izan dituen beste lekurik aurkitzen bada, edo lurzorua kutsatzen duten gaien zantzu argirik bada, kasu horietarako ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoa beteko da.

D.4.– Hauts-emisioak murrizteko neurriak:

– Lanek irauten duten bitartean, ibilgailuak igaro ondorengo garbitze-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obren eraginpeko ingurunean, bai obretara sartzeko guneean. Pistak ureztatze eta aldi baterako estali gabe dauden eremuak eta ibilgailuak pasatzean material partikulatua aireratu dezaketenak garbitzeko sistema bat izan beharko da. Gainera, lehorraldietan, hautsa duten lur- eta material-pilaketak ureztatuko dira.

– Obraguneko irteeran, ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dituzte, solidoak biltzeko sistema bati konektatuta, aurkeztutako dokumentazioan adierazi bezala. Gailuok egoera onean mantenduko dira obren faseak dirauen artean.

– Ebazpen honetako D.12 puntuan zehaztutako dokumentazioan adieraziko dira aipatutako elementuen ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak.

– Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreia ez daitezzen.

– Materialak eta ekarkinak aldi baterako metatzeko eremuak bizitoki diren eraikinetatik urruti kokatuko dira.

D.5.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzera bideratutako neurriak:

– Lanek iraun bitartean, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko –bereziki indusketa-, eraispen-, zama- eta garraio-lanetan–, baita erabilitako makineriaren mantentze orokorrean, zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan, zarata sortzeko ordutegiaren mugaketan, lanetan erabilitako ekipoen zaraten kontrolean eta abarrean ere.

– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko

dira kanpoan erabiltzeko makinen emisio akustikoei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

– Bestalde, proiektua garatzean, obraren eragin-eremuan sorrarazitako zaratek ez dituzte gaindituko kalitate akustikoaren helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak, hargatik eragotzi gabe dekretu horretako 35 bis artikuluan aurreikusitakoa.

D.6.– Hondakinak eta lurrak kudeatzeko neurriak:

– Proiektuaren gauzate- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinen kudeaketa Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta arautegi zehatzetan xedatutakoaren arabera egingo da.

– Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

– Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

– Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdinetako hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

– Eraikitze- eta eraipen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak Eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta Eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoa betez kudeatuko dira.

– Aipatutako 112/2012 Dekretuaren 4. artikulua arabera, proiektuaren sustatzaileak gehitu beharko dio eraikitze-proiektuari hondakinen eta eraikitze- eta eraipen-materialen kudeaketa-azterlan bat, eta I. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du.

– Halaber, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako eskakizunak betetzeaz gain, plan bat prestatuko du kontratistak, obrako eraikuntza- eta eraipen-lanetan sortzen diren hondakinekiko eta materialekiko betebeharrak nola konplutuko dituen azaltzeko. Txosten honen D.12 puntuan aipatzen den lan-programan txertatuko da plan hori.

– Amiantoa duen hondakinik edo elementurik aurkitzen bada, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak ezarritakoa bete beharko da –amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura prebenitu eta gutxitzeko da errege-dekretu hori –, bai eta martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak ezartzen duena ere –amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu behar zaizkien segurtasuneko eta osasuneko gutxienezko xedapenak ezartzen ditu errege-dekretu horrek–.

– Zabortegeira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzeko jarduera arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira. Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

– Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera, proiektuaren obrek iraun bitartean sortuko diren lur-mugimenduen balantzeak 22.786 m<sup>3</sup>-ko lur- eta harri- soberakina eragingo du, eta hori obren kokalekutik kanpo kudeatu beharko da. Soberakin horiek kudeatzeko, hierarkiaren printzipioari eta hondakinak kudeatzeko hurbiltasunaren printzipioari jarraituko zaie. Hondeatutako material kutsagabe naturalen kasuan, ukitutako lursaila morfologikoki lehengoratzeko erabiltzea baztertu ondoren, balorizatzea lehenetsiko da, honelako lanetarako erabiliz: material horiek behar dituzten gertuko eraikuntza-obrak, erauzketa-jarduerek eragindako lursailak birgaitzeko lanak edo beste espazio degradatu batzuk lehengoratzeko lanak. Hala, ez dira deuseztatuko betelan-instalazioetan. Horretarako, urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan –Hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorre buruzkoa– xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

– Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berariazko edukiontziak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita.

– Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi nahiz irakurtzeko eta ezin ezabatuzko moduan etiketatu beharko dira, bai eta indarreko araudiaren arabera ere.

– Apirilaren 8ko 7/2022 legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia. Olio erabilia, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.

– Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, inola ere ez da kontrolatu gabeko efluentetik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

– Kontuan hartuko da abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan erosketa publiko berdeari buruz xedatutakoa.

– Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta indarreko legedian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak txosten horretan sartu beharko dira.

– Lanak amaitzean, proiektuaren sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetzari lurren mugimenduen balantze zehatza eta indusketaren soberakinen jarraipena igorri beharko dizkio, alegia, erauzi ez ziren leku edo obretan eraikuntzarako zuzendutako kopuruak eta ezaugarriak ondo adierazi beharko dira.

#### D.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak:

– Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Kulturalaren Zerbitzuarekin bat etorritik, kontuan izango da proiektuaren eremutik gertu Okarantza (Eguzkietxebarria) eta Eguzkitzaerdikoa baserriak daudela, horiei inola ere ez eragiteko.

– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Departamentuari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

D.8.– Paisaia babesteko eta obren eraginpeko lekuak lehengoratzeko neurriak.

– Lehengoratze-lanak egitean, aurkeztutako ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako proposamena hartuko da oinarritzat, honako zehaztapen hauekin:

- Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, baso mistoaren 4,35 ha-ri eragitea aurreikusten da; beraz, konpentsazio-neurri gisa beharrezkoa izango da eragindako baso-masak duen azaleraren gutxienez bikoitza, hau da, 8,7 ha, lehengoratzea.

- Konpentsazio hori proiektuaren eremuan egingo da lehentasunez. Zentzu horretan, ingurumen-inpaktuaren azterketak 5,6 ha lehengoratzea aurreikusten du, tokiko sistemako eta sistema orokorreko espazio libreen artean banatuta. Egokitzat jotzen da lehengoratu beharreko gainerako azalera goiko kotetan dagoen sistema orokorreko espazio libreetan sartzea, koniferoen landaketak okupatutako lehengo lursailak berreskuratuz.

- Espazio libreak landareztatze orduan, harizti azidofiloaren serieko espezie autoktonoak erabiliko dira, honako proportzio hauetan: % 50 *Quercus robur*, % 10 *Fraxinus excelsior* eta % 10 *Acer campestre*. Gainerako % 30a hariztiaren berezko hainbat zuhaixka-espezieren artean banatuko da.

- Ezponda berdeen bermeetan edo parterreetan proposatutako zuhaitz apaingarriei dagokienez, harizti-multzoaren berezko espezie autoktonoak ere erabili beharko dira.

– Landareztatzeak, bertako espezieak sartuta, landaretza-masa trinkoak eta jarraituak ezartzeko aukera eman beharko du; habitat naturalak sortu beharko dira, eta, ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredi naturalarekin lotu.

– Obraren paisaia-integratzeorako lanak egingo dira obrak eragindako eremu guztietan, aurkeztutako lehengoratze-proiektuan agertu ez arren obrak bukatzean kaltetuta daudenak barne.

– Ingurumen-lehengoratzean luraren berroneratze geomorfologikoa eta edafikoa sartuko da, bai eta landare-estalkia izan dezaketen guneen landareztatzea ere.

– Obrek ukitutako eremu guztietako lehengoratze-neurriak obrak egin ahala hartuko dira; hala, obrek aurrera egiten duten neurrian, birmoldaketa- eta landareztatze-lanak egingo dira. Lehengoratuko diren gainazalek ureztatze-sistema bat izan beharko dute, gutxienez landareztatzearen lehenengo faseetan.

– Lurak mugitzerakoan, espezie inbaditzaileez kutsatuta ez dagoen landare-lurra kendu, pilatu eta bereizita luzatuko da, obrek eragindako inguruen lehengoratze- eta landareztatze-lanak erraztearren.

– Obra kontratatze baldintzen agirian eta aurrekontuetan, proposatutako landareztatze-jarduketak behar bezala beteko direla bermatzeko behar diren baldintza teknikoak eta aurrekontu-partidak jasoko dira.

– *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* edo beste landare inbaditzaile batzuk ez zabaltzeko ekintzak gauzatuko dira. Ildo horretan, bereziki kontrolatu beharko da landare-estalkia lehengoratzeko zereginetan erabiliko diren lurren jatorria, eta aipatutako espezie

horiekin kutsatuta egon daitezkeen lurrak erabiltzea ekidingo da. Gainera, landare-lurrak hilabetez baino gehiagoz pilatuko badira obran, hidroerein edo plastikozko geruza batekin estaliko dira, urak lurrik ez eramateko, lurraren ezaugarriei ez kalterik egiteko eta, ahal den heinean, espezie inbaditzaileak sartzea eragozteko.

– Berme-aldian, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak bete.

– Proiektatutako lur-erazketei dagokienez, lurra eusteko orduan horma berdeei emango zaie lehentasuna, eta ez hormigoizko hornei, betiere horma horiek ezartzeko eta horietan landaredia garatzeko baldintza egokiak ematen direnean (orientazioa, eguzkialdia eta abar).

D.9.– Jardunbide egokien sistema bat ezartzea.

Obrek iraun bitartean, langileek jardunbide egokien sistema bat beharko dute, helburu hauek, besteak beste, ahalik eta hobekien bermatzeko:

– Obraren erabilera-mugak eta makineriaren zirkulazioa kontrolatzea.

– Ondo kontserbatutako landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.

– Hondakinak isurtzea eta olio-isurketen edo lur-arrasteen ondorioz lurzorua eta ura kutsatzea saihestea.

– Obretan sortutako hondakinak era egokian kudeatzea.

– Proiektuaren eragin-esparruko biztanleei zarataren eta hautsaren ondoriozko eragozpenik ez sortzea.

D.10.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Behin obrak amaituta, garbiketa-kanpaina sakona egingo da, proiektuaren eraginaren mende egon den esparru osoan obra-hondakinik ez uzteko. Hondakinak lan-eremutik aterako dira, eta, haiek kudeatzeko, ebazpen honen D.6 apartatuan xedatzen dena aplikatuko da.

D.11.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, babes- eta zuzenketa-neurrien inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Obra-zuzendaritzak ebazpenik eman behar badu baldintza-agiriak horrelako gaien inguruan esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, aholkulariek txosten bat egingo dute aurrez.

Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du, obra gauzatzean; besteak beste, proiektuko ekintzen eragina egiaztatuko du, bereziki honako hauei dagokienez: makinen mugimenduak, hautsa eta zarata sortzea, makinak direla-eta zarata sortzea, hondakin-kudeaketa, natura- eta kultura-ondarea babestea.

D.12.– Lan-programa diseinatzea.

Lanak hasi aurretik, kontratistak proposamen zehatzak egingo ditu azpiapartatu hauetan aipatzen diren alderdiei buruz, gutxienez.

Lanak egiteko programari erantsiko zaizkio proposamen horiek, eta obra-zuzendaritzak berariaz onartuko ditu; aurrez, txosten bat egingo du aurreko apartatuan aipatutako ingurumen-aholkularitzak. Dokumentu hauek bilduko ditu aipatu programak:

– Lan-eremuetarako sarbideen kokapenaren eta ezaugarrien xehetasuna (xehetasun-kartografia barne): oinplanoa, luzetarako eta zeharkako profilak, lur-mugimenduak eta sortutako ezpondak.

– Kontratistaren instalazioen eremuen kokalekuari eta ezaugarriei buruzko xehetasunak, pilaketak aldi baterako pilaketa-eremua, makineria-parkeak, instalazioak eta materialak, ibilgailuak garbitzeko eremuak eta beste edozein azpiegitura adierazita.

– Xehetasun-kartografiaren bidez, zehatz-mehatz mugatuko da lanak gauzatzeko derrigorrean moztu behar ez den ondo kontserbatutako landaredi naturala.

– Lanen ondorioz kutsatzen den ura biltzeko eta tratatzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak. Luzetarako jalkitze-hesiaren, urak jalkitzeko eta iragazteko gailuen edo aurreikusitako bestelako gailuen kokapen zehatza eta neurriak.

– Ibilgailuak garbitzeko gailuen kokapena eta ezaugarriak.

– Obretako eraikuntza- eta eraispn-lanetan sor daitezkeen hondakinak nola kudeatuko diren islatzen duen plana, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Eraikuntza- eta eraispn-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan, eta Eraikuntza- eta eraispn-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 7. artikuluan.

E) Ingurumena zaintzeko programa.

Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera gauzatu da ingurumena zaintzeko programa, eta ondoren zehaztuko diren kontrol hauek erantsi behar zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeke baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

E.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, bai eta babes- eta zuzenketa-neurriak zenbateraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzaren eskura egongo da erregistroa, hark ikuskatzeko, eta, nolahi ere, lanak amaitutakoan, hari bidaliko zaio. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu egin beharko dira aipatutako aldaketak.

Horri dagokionez, obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari buruzko txostena egin beharko da, indarrean dagoen legediak hondakinen kontrolerako, jarraipenerako eta onarpenerako jasotzen dituen agiriak erantsita.

E.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egiaztatu egingo da lanen eremua proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela; obrek ez dute hartuko aurrez ikusitako azalera baino eremu handiagoa.

E.3.– Obrak egin bitartean uren kalitatea kontrolatzea.

Oro har, ingurune urtarrera isurketak egin ditzakeen obra-lekurik izanez gero, D.11 puntuan aurreikusitako ingurumen-aholkularitzak egiaztapena egingo du, urak isuri aurretik urak bideratu, drainatu eta eusteko gailuak ondo dabilzala ziurtatze aldera. Hauxe ere aztertuko du: ibaira material xeheak isuri ote diren, euri-aldietan batez ere.

Sistema horien funtzionamendua eraginkorra ez dela ikusten bada, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, kaltea sortzen duten obra-lekuetan lanak aldi baterako gelditzea barne, material esekiak dituzten urak lur gaineko ur-ibilguetara iritsi ez daitezzen.

#### E.4.– Kalitate akustikoaren kontrola.

Obrak egin bitartean, hilean behin kalitate akustikoaren kontrolak egingo dira eremuaren ondoko etxebizitzetan, obrak aipatutako puntuen eragin-eremuan egiten direnean. Hala badagokio, gero erabileran aplikatu daitezkeen poluzio akustikoaren mailak errespetatzeko behar diren neurri zuzentzaileak eduki behar dituzte.

#### E.5.– Lehengoratzearren arrakasta kontrolatzea.

Obra amaitu ondorengo bost urteetan, proiektuak eragindako guneak lehengoratzeko prozesuaren arrakastaren jarraipena egingo da urtean behin.

#### E.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du sustatzaileak, eta bertan bilduko ditu ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako betebeharrak eta proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena formulatzeko ebazpenean ezarritakoak.

Programa horretan, kontrolatu beharreko parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentzia-balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginak hartzeko eta azterketa egiteko metodologia, kontrol-puntuen kokapenari buruzko kartografia xehatua, haien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren inguruko xehetasunak ere jasoko dira.

#### E.7.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programaren emaitzekin batera, ingurumen-gaietan espezializatutako erakunde batek egindako jarraipen-txostena ere aurkeztu beharko da. Txosten horretan emaitzen analisia jasoko da, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausak eta konponbideak eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztu aurretik egin ez bada.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2021 Legearen 52.2 artikuluan xedatutakoa betez, baldintzak edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako prebentzio- eta zuzenketa-neurriak betetzeari buruzko jarraipen-txostenean, ingurumena zaintzeko programan aurreikusitako neurriak egiaztatzeko zerrenda bat jasoko da. Biak, ingurumena zaintzeko programa eta egiaztapen-zerrenda, organo substantiboak argitaratuko ditu bere egoitza elektronikoan, eta horren berri emango zaio ingurumen-organoari.

Ingurumena zaintzeko programaren barruko txosten eta analisisien emaitzak behar bezala erregistratuko dira. Proiektuaren sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta datu horiek administrazio publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskura jarriko dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudia betetzeko.

F) Babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, bai eta neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak ere, hala komeni bada araudi berriak indarrean jartzen direlako edo inplikaturako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitze beharragatik. Ingurumen-organoak, era berean, alda ditzake babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta eta organo substantiboaren bidez, edo ofizioz. Hori guztia, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta egingo da, edo sor daitezkeen ingurumen-inpaktuen aurrean ezarri diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Hirugarrena.– Proiektua gauzaten hasteko epea lau urtekoa izango da, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta Proiektua gauzaten hasi ez bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honi amaitu egingo zaio indarraldia, eta utzi egingo dio dagozkion ondoreak sortzeari. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, non eta ez den erabakitzen ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia luzatzea. Hori guztia, bat etorritik abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.5 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 43. artikuluan ezarritakoarekin.

Laugarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, Proiektuaren sustatzaileak aldeztatik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari noiz hasiko den proiektua gauzaten.

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukia Durangoko Udalari eta Eguzkitzagoiena sektorearen ituntze-batzarra den sustatzaileari jakinaraztea.

Seigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 24a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.